

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Gamarrako parkean bi foodtruck edo gastrofurgu postu instalatuz espazio publikoa 2026ko eta 2027ko udako kanpainetan okupatzeko baimena emateko lizitazioaren deialdia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 13ko ohiko bilkuran onetsitako erabakiarekin bat etorriz, iragarki honen bidez egiten da Gamarrako parkean bi foodtruck edo gastrofurgu postu instalatuz espazio publikoa 2026ko eta 2027ko udako kanpainetan okupatzeko baimena emateko lizitazioaren deialdia, honako datu hauen arabera:

1. Eskaintzak aurkezteko epe: 10 egun natural, iragarkia ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udaleko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
2. Eskaintzak aurkezteko modalitatea, presentziala, aukera hauetako edozein baliatuz:
 - Vitoria-Gasteizko Udaleko bulego teknikoak (Teodoro Doublang margolariaren kalea 25, 01005 Vitoria-Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.
 - Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (HLB).
 - Edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak adierazitako moduetako edozein.
3. Eskaintzak irekitzea: proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, Kirol Zerbitzu Teknikoaren bulegoetan.
4. Deialdiaren oinarriak pertsona edo entitate interesdunen eskura daude udal-bulegoetan, udalaren iragarki-taulan eta udal-webgunean.
<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/90/00/79000.pdf>.
5. Esleitzeko irizpideak: deialdiaren oinarrietan jasotakoak.
6. Lizitazio honen ondorengo iragarkiak Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 16an

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ